



ZARAUZKO UDALA

ESKUBIDEEI ERANTZUTEKO PROZEDURA

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra

1 bertsioa
2018ko urria

Edukia

Or.

1	Helburua eta legeria aplikagarria	4
1.1	Prozeduraren helburua	4
1.2	Legeria aplikagarria eta irismena	4
2	Eskubideei erantzuteko arau orokorrak	6
2.1	Eskubideei erantzutea	6
2.1.1	Nork erabil ditzake eskubideak	6
2.1.2	Eskaerei erantzuteko bitartekoak eta proba	6
2.1.3	Onartzea	6
2.1.4	Eskaerari ezezkoa ematea	7
2.2	Epeak	7
2.3	Eskubideen erabilerari aplikatzeko mugak	7
3	Prozedurak	9
3.1	Datuak eskuratzeko eskubidea	9
3.1.1	Oinarria	9
3.1.2	Erantzuna	9
3.1.3	Zuzentzeko eskubidea	10
3.1.4	Muga	10
3.2	Zuzentzeko eskubidea	10
3.2.1	Oinarria	10
3.2.2	Erantzuna	10
3.3	Datuak ezabatzea (ahaztua izate4ko eskubidea)	11
3.3.1	Oinarria	11
3.3.2	Salbuespenak	11
3.3.2	Erantzuna	12
3.4	Tratamendua mugatzeko eskubidea	13
3.4.1	Oinarria	13
3.4.2	Erantzuna	13
3.5	Datuak transferitzeko eskubidea	14
3.5.1	Oinarria	14
3.5.2	Erantzuna	14
3.6	Aurka egiteko eskubidea	15
3.6.1	Oinarria	15
3.6.2	Erantzuna	15
3.7	Banakako erabaki automatizatuak	16
3.7.1	Oinarria	16
4	FORMULARIO EREDUAK	17

4.1	Eskubideak erabiltzeko	17
4.2	Eskubideei erantzuteko	19

1 Helburua eta legeria aplikagarria

1.1 Prozeduraren helburua

Prozedura honen helburua da deskribatzea nola erantzun zaien pertsona fisiko interesdunek tratamenduaren arduradunaren aurrean modu eta epe egokietan erabilitako eskubideei; eskubide horiek aurreikusita daude Datuak Babesteko Europako Erregelamenduan.

Zehazki, eskubide hauek definitzen dira: interesdunari buruzko datu pertsonalak eskuratzea, datuok zuzendu edo ezabatzea, datuen tratamendua mugatzea, tratamenduaren aurka egitea, eta datuak transferitzea (ez aplikagarria Administrazio Publikoan).

Entitateak erantzun egin beharko die aurrez aipatutako edozein eskubide erabiltzeko modu eta epe egokian egindako eskaerei; eta hori, Datuak Babesteko Erregelamenduaren baldintzekin bat etorritik, hurrengo ataletan azaltzen den bezala.

1.2 Legeria aplikagarria eta irismena

2016/679 ERREGELAMENDUA (EB), 2016KO APIRILAREN 27KOA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra): 15etik 22ra bitarteko artikulua.

Datuak Babesteko Lege Organikoaren proiektuaren 11. artikulua eta hurrengoak¹

Eskaeraren xede diren eskubide motak:

- Datuak eskuratzeko eskubidea
- Zuzentzeko eskubidea
- Ezabatzeko eskubidea («ahaztua izateko eskubidea»)
- Tratamendua mugatzeko eskubidea
- Datuak transferitzeko eskubidea
- Aurka egiteko eskubidea

¹ 2018ko urria, oraindik Datuak Babesteko Lege Organikoaren proiektua



- Banakako erabaki automatizatuak, profilak egitea barne

2 Eskubideei erantzuteko arau orokorrak

2.1 Eskubideei erantzutea

2.1.1 Nork erabili ditzake eskubideak

Edozein pertsona fisikok erabili ditzake eskubideak, zuzenean edo legezko edo borondatezko ordezkariaren bidez. Ez da beharrezkoa informazioa zertarako nahi duten justifikatzea.

2.1.2 Eskaei erantzuteko bitartekoak eta proba

Bitarteko telematikoen bidez, posta bidez eta aurrez aurre egindako edozein eskaerari erantzun behar zaio. Eskaei erantzuteko prozedurek ahalik eta eskakizun gutxien izango dituzte, eta errazak eta azkarrak izango dira.

Arduradunak frogatu beharko du behar bezala erantzun zaiola edonork bere eskubideak erabiltzeko egindako eskaerari.

Tratamenduaren eragileak ere erantzun ahalko ditu, arduradunaren izenean, eskubideak erabiltzeko egindako eskaerak, baldin eta hala jartzen badu biak lotzen dituen kontratuan edo egintza juridikoan.

2.1.3 Onartzea

Oro har, eskubideak erabiltzeko eskaeren erantzunak **doakoak** izango dira, eta eskubideok erraz erabiltzeko modukoak izango dira interesdunarentzat. Argi eta garbi badago eskaerak oinarririk gabeak edo gehiegizkoak direla, bereziki asko errepikatzen direlako, bi aukera izango ditu tratamenduaren arduradunak:

- a) arrazoizko kanon bat kobratzea (informazioa edo komunikazioa emateko kostu administratiboen arabera), edo eskatutako jarduera egitea,
- b) edo eskaera horri dagokionez, jarduteari uko egitea.

Azken kasu horretan, arduradunak frogatu beharko du eskaera argi eta garbi oinarririk gabea edo gehiegizkoa dela.

Baldin interesdunak bitarteko elektronikoen bidez aurkezten badu eskaera, informazioa ere bitarteko elektronikoen bidez emango zaio, ahal denean, baldin eta interesdunak ez badu

eskatzen beste era batera emateko. Dena den, eskubidea ezingo da ukatu interesdunak beste bitarteko bat aukeratu duelako bakarrik.

2.1.4 Eskaerari ezezkoa ematea

Eskaerari ezezkoa ematen bazaio, atzerapenik gabe jakinaraziko zaio interesdunari — beranduenez ere, eskaera jaso eta hilabeteko epean— zergatik ez den jardun, eta adieraziko zaio aukera duela erreklamazio bat jartzeko (kontrol-agintaritza baten aurrean) eta egintza judizialak aurrera eramateko.

2.2 Epeak

Eskaera bati erantzuteko epe zehatza **hilabete batekoa** da, hura jasotzen denetik kontatzen hasita. Behar izanez gero beste bi hilabetez luzatu daiteke epe hori, eskaeren konplexutasuna eta kopurua kontuan hartuta.

Epea luzatzen bada, interesdunari horren berri eman behar zaio, eskaera jaso eta hilabete bateko epean, eta atzerapenaren arrazoiak azalduko zaizkio.

2.3 Eskubideen erabilerari aplikatzeko mugak

Eskubideen erabilera mugatu ahalko da, mugatze horrek oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatzen baditu eta beharrezkoa eta proportzionatua bada honako hauek babesteko:

- Estatuaren segurtasuna.
- Defentsa.
- Segurtasun publikoa; arau-hauste penalak prebenitzea, ikertzea, detektatzea edo epaitzea, edo zehapen penalak betearaztea, bai eta segurtasun publikoaren aurkako mehatxuetatik babestea eta mehatxuok prebenitzea ere.
- Batasunaren edo estatu kide baten interes orokorreko beste helburu garrantzitsu batzuk —bereziki Batasunaren edo estatu kide baten interes ekonomiko edo finantzario garrantzitsu bat—, baita eremu fiskalean, aurrekontu-eta diru-eremuan, osasun publikoan eta gizarte-segurantzian ere.
- Independentzia judizialaren eta prozedura judizialen babesa.
- Araututa dauden lanbideetako arau deontologikoen urraketak prebenitzea, ikertzea, detektatzea edo epaitzea.

- Agintaritza publikoa, noizean behin bada ere, erabiltzearekin lotutako gainbegiratze, ikuskatze edo arautze zereginak.
- Interesdunaren babesa edo beste batzuen eskubide eta askatasunena.
- Demanda zibilen betearazpena.

3 Prozedura

3.1 Datuak eskuratzeko eskubidea

3.1.1 Oinarria

Edozein pertsona fisikok, elektronikoki, aurrez aurre edo posta bidez, eskaera bat egiten dionean entitateari, datuak eskuratzeko eskubideari erantzuteko prozedura bat hasten da, alde batek hala eskatu duelako.

Interesdunak eskubidea izango du tratamenduaren arduradunak egiazta diezaion berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egiten ari den ala ez; eta, hala bada, eskubidea du datu pertsonalak eta ondorengo informazioa jasotzeko:

- Tratamenduaren helburuak.
- Datu pertsonalen kategoriak.
- Datu pertsonalak zer hartzailerik edo zer hartzaile-kategoriari komunikatu zaizkion edo komunikatuko zaizkion, bereziki hirugarren herrialde bateko hartzaileak edo nazioarteko erakundeak badira (bai eta nazioarteko transferentziak egiteko hartutako bermeak ere).
- Ahal bada, datu pertsonalak noiz arte kontserbatuko diren edo, hori ezinezkoa bada, epe hori zehazteko zer irizpide erabiliko diren.
- Eskubidea duela tratamenduaren arduradunari eskatzeko datu pertsonalak zuzendu edo ezabatu ditzan, edo tratamendua mugatu dezan, baita tratamendu horren aurka egiteko ere.
- Eskubidea duela kontrol-agintaritza batean erreklamazio bat aurkezteko.
- Datu pertsonalak interesdunarengandik jaso ez direnean, haien jatorriari buruzko edozein informazio.
- Erabaki automatizatuak daudela, (profilak egitea barne), eta gutxienez kasu horietan aplikatutako logikaren gaineko informazio esanguratsua, bai eta interesdunarentzat tratamendu horrek duen garrantzia eta izan ditzakeen ondorioak ere.

3.1.2 Erantzuna

Tratamenduaren arduradunak tratamenduaren xede diren datu pertsonalen kopia bat emango du. Interesdunak beste kopiarik eskatzen badu, tratamenduaren arduradunak arrazoizko kanon bat jaso ahal izango du, kostu administratiboan ordainetan.

Interesdunak eskabidea bitarteko elektronikoen bidez aurkezten duenean, erabilera orokorreko formatu elektronikoen baten bidez bidaliko da informazioa, baldin eta interesdunak ez badu eskatzen beste modu batean bidaltzeko.

Datuak eskuratzeko eskubidea beteta dagoela ulertuko da, baldin tratamenduaren arduradunak interesdunari datuetara sartzeko urruneko sistema zuzen eta seguru bat jartzen badio, eta sistemak bermatzen badu, modu etengabea, datuen osotasunera iristea. Kasu horretan, eskubidea erabiltzeko eskaera erantzunda dagoela ulertzeko nahikoa izango da arduradunak interesdunari adieraztea zein modutan sar daitekeen sistema horretan.

3.1.3 Zuzentzeko eskubidea

Arduraduna interesdunari buruzko datu-kopuru handia tratatzen ari bada, eta interesdunak datuak eskuratzeko eskubidea erabiltzen badu, baina zehaztu gabe datu guztiei edo zati bati buruz ari den, arduradunak, informazioa eman aurretik, interesdunari eskatu ahalko dio zehaztu dezala ea bere eskaera zein daturi edo tratamendu-jarduerari buruzkoa den.

3.1.4 Muga

Datuak eskuratzeko eskubide honen erabilera errepikakorra dela ulertuko da, **sei hilabeteko epean behin baino gehiagotan** egiten bada, hori egiteko legezko arrazoirik eguki gabe.

3.2 Zuzentzeko eskubidea

3.2.1 Oinarria

Eskubide honen bidez tratamendu-arduradunak atzerapen bidegabekeri gabe zuzendu behar ditu interesdunari buruz dauden datu pertsonal okerrak. Tratamenduaren helburuak kontuan hartuta, interesdunak eskubidea izango du berari buruz dauden datu pertsonal osatugabeak osatu daitezkeen, baita adierazpen gehigarri baten bidez ere.

Interesdunak bere eskaeran adierazi beharko du zein daturi buruz ari den eta zein zuzenketa egin behar den. Beharrezkoa denean, tratamenduaren xede diren datuak oker daudela edo osatu gabe daudela frogatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu.

3.2.2 Erantzuna

Prozedura honen 2. ataleko arau orokorra.

3.3 Datuak ezabatzea (ahaztua izateko eskubidea)

3.3.1 Oinarria

Interesdunak eskubidea izango du berari buruzko datu pertsonalak atzerapen bidegaberik gabe ezabatu ditzan tratamendu-arduradunak, baldintza hauetako bat gertatzen denean:

- Datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak, datuok zertarako bildu eta tratatu ziren kontuan hartuta.
- Interesdunak atzera botatzen badu tratamendua egiteko adierazi zuen adostasuna.
- Interesdunak tratamenduaren aurka egiten badu, eta tratamendua egiteko beste arrazoi legitimorik gailentzen ez bada; edo interesdunak tratamenduaren aurka egiten badu, publizitate komertzialari eta profilei dagokienez.
- Datu pertsonalen tratamendua legez kontra egin bada.
- Datu pertsonalak ezabatu behar badira, lege-betebehar bat betetzeko.
- Informazioaren gizarteko zerbitzuen eskaintza batekin lotuta jaso badira datu pertsonalak.

Arduradunak datu pertsonalak jakitera eman baditu eta datu horiek ezabatu behar baditu, tratamenduaren arduradunak, eskura duen teknologia eta horren aplikazioaren kostua kontuan hartuta, arrazoizko neurriak hartuko ditu (neurri teknikoak sartuta) ezabapena eskatu duen interesdunaren datu pertsonalak tratatzen ari diren arduradunei jakinarazteko ezaba ditzatela datu horiek eskuratzeko lotura guztiak edo ez dezatela egin datu horien kopia edo erreplikarik.

3.3.2 Salbuespenak

Datuak ezabatzeko eskubidearen erabilera ukatu daiteke, hurrengo egoera hauetako batean:

- Adierazpen- eta informazio-askatasunerako eskubidea erabiltzeko.
- Tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion zuzenbidean jarritako lege-betebehar bat konplitzeko, edo interes publikoaren izenean edo botere publikoen jardunean.
- Osasun publikoaren alorreko interes publikoko arrazoiengatik.

- Tratamenduaren helburua bada interes publikoaren izenean artxibatzea, edo ikerketa zientifikoa, historikoa edo estatistikoa egitea.
- Erreklamazioak formulatzeko, erabiltzeko edo defendatzeko.

Gainera, arduradunak gorde ahalko ditu eragindako pertsonaren identifikazioko datuak, etorkizunean ez daitezen datuok tratatu zuzeneko publizitate komertziala egiteko.

3.3.2 Erantzuna

Prozedura honen 2. ataleko arau orokorra.

3.4 Tratamendua mugatzeko eskubidea

3.4.1 Oinarria

Interesdunak eskubidea izango du tratamenduaren arduradunak datuen tratamendua mugatu dezan, baldintza **hauetako bat** gertatzen denean:

- Interesdunak datu pertsonalen zehaztasuna inpugnatzen badu, tratamenduaren arduradunak datuon zehaztasuna egiaztatzeko adinako epe batean.
- Tratamendua legez kontrakoa bada eta interesdunak datu pertsonalak ezabatzearen aurka egiten badu eta, horren orde, haien erabilera mugatzeko eskatzen badu.
- Arduradunak dagoeneko ez baditu behar datu pertsonalak tratamenduaren helbururako, baina interesdunak bai, erreklamazioak formulatzeko, erabiltzeko edo defendatzeko.
- Interesdunak tratamenduaren aurka egin badu, arduradunaren arrazoi legítimoak interesdunaren arrazoi legítimoen gainera dauden ala ez egiaztatzen den bitartean.

Aurrez adierazitako egoeraren batengatik datu pertsonalen tratamendua mugatu bada, datuon tratamendua egin ahal izango da –kontserbazioa izan ezik– soil-soilik interesdunak bere adostasuna agertzen badu, edo erreklamazioak formulatzeko, erabiltzeko edo defendatzeko, edo beste pertsona fisiko edo juridiko baten eskubideak babesteko, edo interes publikoko arrazoi garrantzitsuengatik.

Arduradunaren sistemetan argi eta garbi jasoko da datu pertsonalen tratamendua mugatuta dagoela.

3.4.2 Erantzuna

Prozedura honen 2. ataleko arau orokorra.

3.5 Datuak transferitzeko eskubidea

3.5.1 Oinarria

(Ez aplikagarria Administrazio Publikoan)

Interesdunak eskubidea izango du tratamendu-arduradun bati helarazi dizkion datu pertsonalak erabilera orokorreko eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean jasotzeko, bai eta beste tratamendu-arduradun bati bidaltzeko ere, datuak jaso dituen arduradunak oztoporik jarri gabe, baldin eta tratamendua adostasunean edo kontratu batean oinarrituta badago **eta** tratamendua bitarteko automatizatuen bidez egiten bada.

Era berean, interesdunak eskubidea izango du datu pertsonalak zuzenean arduradun batengandik bestearengana transmiti daitezen, teknikoki hala egin badaiteke.

Eskubide hori ez da aplikatuko tratamendua egitea beharrezkoa denean zeregin jakin bat betetzeko, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean.

3.5.2 Erantzuna

Prozedura honen 2. ataleko arau orokorra.

3.6 Aurka egiteko eskubidea

3.6.1 Oinarria

Bere egoera partikularra dela eta, interesdunak eskubidea izango du, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, baldin tratamendu horren xedea interes publikoko zeregin bat egitea, ahalmen publikoak gauzatzea edo interes legitimoak betetzea bada (profilen elaborazioa sartuta).

Tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak tratatzeari utziko dio; ez, ordea, egiaztatzen badu interesdunaren interes, eskubide eta askatasunen gainera arrazoi legitimo larriak daudela tratamenduari eusteko, edo erreklamazioak formulatzeko, erabiltzeko edo defendatzeko, edo interes publikoko arrazoiengatik.

Hala, interesdunari egiten zaion lehen komunikazioaren unetik, esplizituki aipatuko zaio uko egiteko eskubidea duela, eta hori argi eta garbi azalduko da, beste edozein informazio alde batera utzita.

3.6.2 Erantzuna

Prozedura honen 2. ataleko arau orokorra.

3.7 Banakako erabaki automatizatuak

3.7.1 Oinarria

Interesdunak eskubidea izango du tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta beregan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten objektu ez izateko, profilak egitea barne.

Tratamendua honelakoa denean izan ezik:

- Beharrezkoa bada interesdunaren eta tratamenduaren arduradunaren artean kontratu bat egiteko edo betearazteko.
- Tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion zuzenbideak baimentzen badu; dena den, interesdunaren eskubideak, askatasunak eta interes legitimoak babesteko neurri egokiak jarri behar ditu.
- Interesdunak berariaz emandako adostasunean oinarritzen bada.

Adierazitako kasu horietan guztietan, segurtasun neurriak aplikatu behar dira.

Ezingo litzateke tratamendua egin, ezta ere, pertsona bati buruzko erabakiak hartu behar badira kategoria bereziko datuen tratamendu automatizatu batean oinarrituta; baina bai, baimen esplizitua ematen badu edo erakunde publikoen arloko jarduera bat bada.

4 FORMULARIO EREDUAK

4.1 Eskubideak erabiltzeko

Eredu hau proposatzen da, interesdunak formularioa eskatzen duenean emateko

DATUAK BABESTEKO ESKUBIDEA ERABILTZEKO FORMULARIOA			
INTERESDUNAREN DATU PERTSONALAK			
Izen-deiturak:			
NAN			
Helbide elektronikoa			
Posta helbidea			
ESKAERA MOTA			
<input type="checkbox"/> Datuak eskuratzea	<input type="checkbox"/> Datuak zuzentzea	<input type="checkbox"/> Datuak ezabatzea	<input type="checkbox"/> Tratamendua mugatzea
<input type="checkbox"/> Datuak transferitzea	<input type="checkbox"/> Tratamenduaren aurka egitea	<input type="checkbox"/> Banakako erabaki automatizatuak	
Eskaera			
JAKINARAZPENAK ETA INFORMAZIOA JASOTZEKO MODUA (adierazi aukera bat)			
<input type="checkbox"/>	Posta elektronikoz bidez jakinaraztea nahi dut		
<input type="checkbox"/>	Posta arrunt bidez jakinaraztea nahi dut		

_____ -en, 20__ ko _____ -ren _____ -(e)an

Sin.

4.2 Eskubideei erantzutea

Eredu hau proposatzen da, interesdun batek eskubideak erabiltzeko eskaera egiten badu, hari erantzuteko.

ERANTZUTEKO FORMULARIOA			
ESKATZAILEAREN DATU PERTSONALAK			
Izen-deiturak:			
NAN			
Helbide elektronikoa			
Posta helbidea			
ERABILITAKO ESKUBIDEA			
<input type="checkbox"/> Datuak eskuratzea	<input type="checkbox"/> Datuak zuzentzea	<input type="checkbox"/> Datuak ezabatzea	<input type="checkbox"/> Tratamendua mugatzea
<input type="checkbox"/> Datuak transferitzea	<input type="checkbox"/> Tratamenduaren aurka egitea	<input type="checkbox"/> Banakako erabaki automatizatuak	
ERANTZUNA			
<input type="checkbox"/> Onestea	<input type="checkbox"/> Konpontzea	<input type="checkbox"/> Ukatzea	
ARRAZOIA			
Aukeratu			
<ul style="list-style-type: none"> – <u>Datuak eskuratzea/onetsi</u>: Idatzi honen bidez, xxxxx-k erabaki du tratamenduaren xede diren datu pertsonalen kopia interesdunari ematea, erantsitako dokumentua entregatuta. – <u>Datuak zuzentzea/onetsi</u>: Idatzi honen bidez, xxxxx-k erabaki du tratamenduaren xede diren interesdunaren datu pertsonalak zuzentzea: (Adierazi zuzendutako datuak) – <u>Datuak ezabatzea/onetsi</u>: Idatzi honen bidez, xxxxx-k erabaki du tratamenduaren xede diren interesdunaren datu pertsonalak ezabatzea. – <u>Tratamendua mugatzea/onetsi</u>: Idatzi honen bidez, xxxxx-k erabaki du tratamenduaren xede diren interesdunaren datu pertsonalak mugatzea (aipatu muga) 			

- Datuak transferitzea/onetsi: Idatzi honen bidez, **xxxxx-k** erabaki du tratamenduaren xede diren interesdunaren datu pertsonalak transferitzea (**adierazi zein arduraduni transferituko zaion**)
- Tratamenduaren aurka egitea/onetsi: Idatzi honen bidez, **xxxxx-k** erabaki du interesdunak tratamenduaren aurka egiteko (**adierazi data**)-ean erabilitako eskubideari erantzutea.
- Tratamenduaren aurka egitea/onetsi: Idatzi honen bidez, **xxxxx-k** erabaki du interesdunak tratamenduaren banakako erabaki automatizatuen aurka egiteko (**adierazi data**)-ean erabilitako eskubideari erantzutea.
- Zehaztu eskubidea/ konpondu: Idatzi honen bidez, **xxxxx-k** interesdunari eskatzen dio espezifikatu ditzala **YYYYYYY** eskubidearen xede diren datu zehatzak edo tratamendu-jarduerak.
- Ukatzea/(zehaztu eskubidea): **Zehaztu zein diren ukazioaren arrazoiak**

_____ -en, 20__ ko _____ -ren _____ - (e)an

Sinadura/Erakundearen zigilua

Datuak eskuratzeko bakarrik

Interesdunaren datu pertsonalen eranskina

Tratamenduaren helburuak	
Datu pertsonalen kategoriak	
Hartzaileak edo hartzaile-kategoriak	
Hirugarren herrialdeetako edo nazioarteko erakundeetako hartzaileak (bai eta nazioarteko transferentziak egiteko hartutako bermeak ere)	
Datu pertsonalak kontserbatzeko aurreikusitako epea edo epea zehazteko erabilitako irizpideak	
Datuen jatorriari buruzko informazioa, interesdunarengandik jaso ez direnean	
Erabaki automatizatuak daude, profilak egitea barne; aplikatutako logikaren gaineko informazioa, eta interesdunarentzat tratamendu horrek duen garrantzia eta aurreikusitako ondorioak.	

Interesdunak eskubidea du: a) dagokion kontrol-agintaritzaren aurrean erreklamazio bat jartzeko, eta b) datu pertsonalak zuzendu edo ezabatzea edo datu pertsonalen tratamendua mugatzea edo tratamendu horren aurka egitea eskatzeko.